

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### Borondatezko epean biltzea 2020ko zergak eta tasak

Nik, Natividad Lopez de Munain Alzolak, Burgeluko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: otsailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, 2020ko zerga hauek:

- Ibilgailuen gaineko zerga, 2020.
- Ur hornidura, estolderia eta arazketa zerbitzuaren tasa, 2019ko 2. seihilekoa.

A) Borondatezko epea: 2020ko otsailaren 15etik apirilaren 15era.

B) Premiamendu epea: apirilaren 16tik aurrera. Egun horretatik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, bai eta dagokion errekargua kobratzeari ere, indarrean den Dirubilletako Arautegi Orokorren arabera.

Ordaintzeko lekua:

A) A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek Kutxabankek Dulantzina daukan bulegoan (Dulantzi kalea, 11) egingo dute ordainketa borondatezko epean (otsailaren 15etik apirilaren 15era), bulego orduetan.

Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Burgeluko udaletxean izapidetu behar dira.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Burgelu, 2020ko otsailaren 10a

*Alkatea*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*